

# 10

ITXIERA

CIERRE

**U N I T A T E A**

## HELBURUA

Bezeroei taberna ixteko garaia iritsi dela adieraztea.

## OBJETIVO

Informar a los clientes de que ha llegado la hora de cerrar el bar.

10.1. Elkarrizketa

10.2. Ariketak

10.3. Azalpenak

10.4. Hiztegia

10.5. Errepasoa

10.6. Badakizu?

10.7. Erantzunak

10.1. Diálogo

10.2. Ejercicios

10.3. Explicaciones

10.4. Diccionario

10.5. Repaso

10.6. ¿Sabías que...?


10.7. Soluciones

## 10.1. Elkarrizketa



Komiki honetako elkarrizketa CDan grabatuta izango duzu. Entzun eta ikasi.  
Audio-pasartea: CDaren 13. pista.

GOIZEKO ORDU BIAK DIRA. ORAINDIK TABERNAN  
KOADRILA BAT DAGO, BAINA TABERNARIAK ITXI  
EGIN NAHI DU.



**Tabernaria:**  
Mesedez, edariak  
bukatu, ixteko garaia  
da eta.

**Neska 1:** Ixteko garaia?  
Zer ordu da, ba?

**Tabernaria:** Goizeko  
ordu biak dira.


**Neska 2:** Ordu biak?  
Oraindik goiz da!

**Tabernaria:** Goiz? Goizeko 9etatik nago hemen, eta, gainera,  
badakizue... legeak ordu bietan ixteko esaten du.

**Mutila:** Beno, baina edariak bukatu behar ditugu.

**Tabernariak:** Bale, bale. Nik atea itxi eta musika itzali behar dut.

**Neska 1:** Konforme!



**Neska 1:** Beno,  
bagoaz.

**Mutila:** Bai,  
erretiratzeko garaia  
da eta.

**Tabernaria:** Eskerrik  
asko eta barkatu,  
baina...

**Neska 1:** Lasai, lasai. Gabon pasa eta bihar arte.

**Neska 2:** Agur!

**Mutila:** Bihar arte!


**Tabernaria:** Bihar arte, bai.

## 10.1. Diálogo



El diálogo de estas viñetas lo tienes grabado en el CD. Escucha y apréndelo.  
Audio: Pista 13 CD.

SON LAS DOS DE LA MAÑANA. TODAVÍA HAY UNA CUADRILLA EN EL BAR, PERO LA CAMARERA DEL BAR QUIERE CERRAR.



**Camarera:** Por favor, id terminando las bebidas, es hora de cerrar.

**Chica 1:** ¿La hora de cerrar? ¿Qué hora es pues?

**Camarera:** Son las dos de la mañana.

**Chica 2:** ¿Las dos?


*¡Todavía es pronto!*

**Camarera:** ¿Pronto? Estoy aquí desde las nueve de la mañana, y además ya sabéis... la ley dice que hay que cerrar a las dos.

**Chico:** Bueno, pero tenemos que terminar los tragos.

**Camarera:** Vale, vale. Yo de momento, cierro la puerta y apago la música.

**Chica 1:** ¡Conforme!



**Chica 1:** Bueno, nos vamos.

**Chico:** Sí, que ya es hora de retirarse.

**Camarera:** Gracias, ya lo siento, pero...

**Chica 1:** Tranquila,

*tranquila. Que pases buena noche, hasta mañana.*

**Chica 2:** ¡Adiós!

**Chico:** ¡Hasta mañana!

**Camarera:** Sí, hasta mañana.

10.2. Ariketak • Ejercicios

1. Ariketa



Entzun elkarrizketa eta saiatu galdera hauei erantzuten.  
Escucha el diálogo y trata de responder a estas preguntas.


Audio-pasartea: CDaren 13. pista/Audio: Pista 13 CD.

- a. Zer ordu da? .....
- b. Zer ordutan ixten da taberna? .....
- c. Zer da, goiz ala berandu? .....

2. Ariketa

Idatzi zer ordu den erloju bakoitzean.

Escribe qué hora es en cada reloj.



- |         |         |
|---------|---------|
| 1 ..... | 5 ..... |
| 2 ..... | 6 ..... |
| 3 ..... | 7 ..... |
| 4 ..... | 8 ..... |

3. Ariketa

Euskaratu esaldiok.

Pon en euskera estas frases.

- a. Es hora de cerrar. ....
- b. Son las cinco de la tarde. ....
- c. Es hora de abrir. ....
- d. A las tres de la mañana. ....

4. Ariketa

Idatzi esaldiak ereduaren arabera.

Escribe las frases según el ejemplo.

Eredua: itxi + ordua

Ixteko ordua.

- a. bazkaldu + garaia .....
- b. irten + ordua .....
- c. musika kendu + ordua .....

## 10.2. Ariketak • Ejercicios

### 5. Ariketa

Idatzi letraz ordutegi hauek.

Escribe con letras estos horarios.

Adibidez: 08:00-14:00

Zortzietatik ordu bietara

12:15-17:30 .....  
 13:00-21:00 .....  
 15:00-02:00 .....  
 09:00-24:00 .....

### 6. Ariketa

Lotu zerikusia duten esaldiak.

Une las frases que estén relacionadas.


GOSALTZEKO GARAIA  
 AFALTZEKO GARAIA  
 BAZKALTZEKO GARAIA  
 HAMAIKETAKOA EGITEKO GARAIA  
 MERIENDATZEKO GARAIA

ARRATSALDEKO BOST ETA ERDIAK  
 GOIZEKO HAMAIKA ETA ERDIAK  
 EGUERDIKO ORDU BATA  
 GAUEKO BEDERATZIAK  
 GOIZEKO ZORTZIAK

### 7. Ariketa

Lotu globoak eta pertsonaiak.

Une los globos con los personajes.



- a. Barkatu, ixteko ordua da.
- b. Goizeko hirurak.
- c. Zer ordu da?

### 8. Ariketa

Euskaratu hurrengo elkarrizketa.

Pon en euskara el siguiente diálogo.

Cliente: ¿Qué hora es? .....  
 Camarera: Son las dos y media de la mañana .....  
 Cliente: Es tarde, es la hora de ir a casa .....  
 Camarera: Sí, es hora de cerrar .....  
 Cliente: Bueno, hasta mañana .....  
 Camarera: Sí, buenas noches y hasta mañana .....

## 10.3. Azalpenak

### -T(Z)EKO GARAIA/ORDUA

"Hora de cerrar", "hora de comer", etab. nola esaten diren ikasiko duzu orain.

**Egitura:** ADITZA + -T(Z)EKO + ORDUA/GARAIA/EGUNA

Itxi + -t(z)eko + ordua = Ixteko ordua.

### Beste adibide batzuk:

- . Irekitzeko garaia da.
- . Erretiratzeko ordua da.

### ORDUA/LA HORA

#### A. Zer ordu da?

01:00 Ordu bata	05:25 Bostak eta hogeita	09:00 Bederatziak
01:05 Ordu bata eta bost	bost	08:45 Bederatziak laurden
02:00 Ordu biak	06:00 Seiak	gutxi
02:10 Ordu biak eta hamar	06:30 Sei eta erdiak	10:00 Hamarrak
03:00 Hirurak	07:00 Zazpiak	09:50 Hamarrak hamar
03:15 Hirurak eta laurden	06:35 Zazpiak hogeita bost	gutxi
04:00 Laurak	gutxi	11:00 Hamaikak
04:20 Laurak eta hogeia	08:00 Zortziak	10:55 Hamaikak bost gutxi
05:00 Bostak	07:40 Zortziak hogeia gutxi	12:00 Hamabiak

Orduaren aurretik "goizeko", "arratsaldeko", "gaueko", etab. jarriko dugu.

**Adibidez:** Zer ordu da? 10:30 Goizeko hamar eta erdiak dira.

22:30 Gaueko hamar eta erdiak dira.

#### B. Zer ordutan?

01:00 Ordu batean	05:25 Bostak eta hogeita	08:45 Bederatziak laurden
01:05 Ordu bata eta bostean	bostean	gutxitan
02:00 Ordu bietan	06:00 Seietan	10:00 Hamarretan
02:10 Ordu biak eta hamarrean	06:30 Sei eta erdietan	09:50 Hamarrak hamar
03:00 Hiruretan	07:00 Zazpitan	gutxitan
03:15 Hirurak eta laurdenetan	06:35 Zazpiak hogeita bost	11:00 Hamaiketan
04:00 Lauretan	gutxitan	10:55 Hamaikak bost
04:20 Laurak eta hogeian	08:00 Zortzietan	gutxitan
05:00 Bostetan	07:40 Zortziak hogeia	12:00 Hamabietan
	gutxitan	
	09:00 Bederatzietan	

**Ejemplo:** Zer ordutan ixten da?

(12:00etan) Hamabietan ixten da.

#### C. Zein ordutatik zein ordutara?

Behin ordua ikasiz gero, oso erraza gertatuko zaizu "noiztik noiz arte" esateko erabiltzen dugun egitura ikastea. Bakarrik zenbakieie "etatik" eta "etara" erantsi beharko diezu.

Adibidez: 09:00etatik 14:00etara

Bederatzietatik ordu bietara

12:30etatik 06:15etara

Hamabi eta erdietatik seiak eta laurdenetara

## 10.3 Azalpenak

### -T(Z)EKO GARAIA/ORDUA (HORA DE...)

Ahora aprenderás como se dice "hora de cerrar", "hora de comer", etc.

**Estructura:** ADITZA + -T(Z)EKO + ORDUA/GARAIA

Verbo + (de) + hora / momento

Itxi + -t(z)eko + ordua=**lxteko ordua**

Cerrar + (de) + hora =Hora de cerrar.

**Otros ejemplos:** Irekitzeko garaia da. Es hora de abrir.

Erretiratzeko ordua da. Es hora de retirarse

#### A. ¿Qué hora es?

01:00 Ordu bata	05:25 Bostak eta hogeita	09:00 Bederatziak
01:05 Ordu bata eta bost	bost	08:45 Bederatziak laurden
02:00 Ordu biak	06:00 Seiak	gutxi
02:10 Ordu biak eta hamar	06:30 Sei eta erdiak	10:00 Hamarrak
03:00 Hirurak	07:00 Zazpiak	09:50 Hamarrak hamar
03:15 Hirurak eta laurden	06:35 Zazpiak hogeita bost	gutxi
04:00 Laurak	gutxi	11:00 Hamaikak
04:20 Laurak eta hoge	08:00 Zortziak	10:55 Hamaikak bost gutxi
05:00 Bostak	07:40 Zortziak hoge gutxi	12:00 Hamabiak

Delante de la hora pondremos "goizeko"/de la mañana, "arratsaldeko"/de la tarde, "gaueko"/de la noche, etc.

Ejemplo: **zer ordu da?** ¿Qué hora es? **10:30 Goizeko hamar eta erdiak dira.**  
Las diez y media de la mañana  
**22:30 Gaueko hamar eta erdiak dira.**  
Las diez y media de la noche

#### B. ¿A qué hora?

01:00 Ordu batean	05:25 Bostak eta hogeita	08:45 Bederatziak laurden
01:05 Ordu bata eta bostean	bostean	gutxitan
02:00 Ordu bietan	06:00 Seietan	10:00 Hamarretan
02:10 Ordu biak eta hamarreetan	06:30 Sei eta erdietan	09:50 Hamarrak hamar
03:00 Hiruretan	07:00 Zazpitan	gutxitan
03:15 Hirurak eta	06:35 Zazpiak hogeita bost	11:00 Hamaiketan
laurdenetan	gutxitan	10:55 Hamaikak bost
04:00 Lauretan	08:00 Zortzietan	gutxitan
04:20 Laurak eta hogeian	07:40 Zortziak hoge	12:00 Hamabietan
05:00 Bostetan	gutxitan	
	09:00 Bederatzietan	

Ejemplo: **Zer ordutan ixten da?** ¿A qué hora cierra?  
(12:00etan) **Hamabietan ixten da** / Cierra a las doce.

#### C. ¿De qué hora a qué hora?

Una vez que has aprendido la hora, te resultará muy fácil aprender la estructura que utilizaremos para decir "de cuándo a cuándo".

Solamente deberás agregarle "etatik" y "etara" a los números.

**Ejemplo:** 09:00etatik 14:00etara

**Bederatzietatik ordu bietara.**

De nueve a dos.

**12:30etatik 06:15etara.**

**Hamabi eta erdietatik seiak eta laurdenetara.**

De doce y media a seis y cuarto.

## 10.4. Hiztegia

## Diccionario

### ADITZAK

Afaldu  
Barkatu  
Bazkaldu  
Bukatu  
Edan  
Erretiratu  
Esan  
Etorri  
Gosaldu  
Hasi  
Ireki  
Irten  
Itxi  
Joan  
Pasatu  
Sartu

### VERBOS

Cenar  
Perdonar  
Comer  
Terminar  
Beber  
Retirarse  
Decir  
Venir  
Desayunar  
Empezar  
Abrir  
Entrar  
Cerrar  
Ir  
Pasar  
Salir

diccio

## 10.4. Hiztegia

**BESTERIK**

Berandu  
Eragozpen  
Etxera  
Gainera  
Goiz  
Lege  
Mesedez  
Oraindik

## Diccionario

**OTROS**

Tarde  
Molestia  
A casa  
Además  
Pronto; Temprano  
Ley  
Por favor  
Todavía

10.5. Errepasoa • Repaso

A. Idatzi erloju bakoitzaren azpian eguneko zein garaitakoa den ordua: goizeko, eguerdikoa, arratsaldekoa ala gauekoa.

Escribe debajo de cada reloj a qué parte del día corresponde la hora: a la mañana, al mediodía, a la tarde o a la noche.



1 ..... 2 ..... 3 ..... 4 ..... 5 .....



B. Elkarrizketa entzun bitartean, saiatu hutsuneak betetzen.

Mientras escuchas el diálogo trata de rellenar los espacios.

Audio-pasartea: CDaren 13. pista/Audio: Pista 13 CD.

Tabernaria: Mesedez, edariak bukatu, .....eta.

Neska 1: Ixteko garaia?....., ba?

Tabernaria: .....dira.

Neska 2: Ordu biak? Oraindik goiz da!

Tabernaria:.....? Goizeko 9etatik nago hemen, eta, gainera, badakizue... legeak .....ixteko esaten du.

Mutila: Beno, baina edariak bukatu behar ditugu.

Tabernariak: Bale, bale. Nik atea .....eta musika .....behar dut.

Neska 1: Konforme!

Neska: Beno, bagoaz.

Mutila: Bai, .....da eta.

Tabernaria: Eskerrik asko eta barkatu, baina...

Neska 1: Lasai, lasai. Gabon pasa eta bihar arte.

Neska 2: Agur!

Mutila: Bihar arte!

Tabernaria: Bihar arte, bai.

C. Idatzi letraz zenbakiz dagoena.

Escribe con letras lo que está escrito con números.

a. Taberna hau goizeko 3etan ixten da. ....


b. Ekaitz" taberna arratsaldeko 5etan irekitzen da. ....

c. Diskoteka goizeko 6,30etan ixten da. ....

d. Orduategia: goizeko 10etatik arratsaldeko 8etara. ....

## 10.6. Badakizu? • ¿Sabías qué...?

Sekula ez al zaizu gertatu taberna batetik pasatu eta nahiz eta atea eta itxita egon, barruan jendea dagoen susmoa eduki? Ez, ez dira garbitzen ari, beno, hori ere baliteke, baina seguruenaz azkeneko gautxoriak izango dira. Izan ere, lehen tabernek berandu arte irekita egoteko baimena zuten, ordu txikitari ere tabernaz taberna ibiltzeko aukera genuen. Duela urte batzuetatik hona, berriz, Europako beste herrialdeekin bateratsu, tabernetako ordutegia murriztu egin zen, hau da, lehenago itxi beharra daukate. Zer egin, ordea, ixteko garaia ailegatuta, barruan dagoen bezeroekin? Asmatu dugu, bada, horretarako ere irtenbidea! Leku askotan, musika kendu, edo behintzat jaitsi, argi batzuk emendatu (nik dakidan taberna batean, argien partez, kandelak pizten dituzte), atea itxi eta goxo-goxo barruan gelditzen dira azkeneko bezeroak alde egin arte.



¿Nunca te ha ocurrido pasar por un bar y aún estando la puerta cerrada, tener la impresión de que hay gente dentro? No, no están limpiando, bueno, eso también es posible, pero seguramente serán los últimos noctámbulos. Antes los bares tenían permiso para estar abiertos hasta tarde, aún de madrugada teníamos la posibilidad de andar de bar en bar. Desde hace unos años, junto con otros lugares de Europa, los horarios de los bares se han visto reducidos, es decir, deben cerrar más temprano. ¿Qué hacemos con los clientes que aún están dentro cuando llega la hora de cerrar? ¡Pues, también para eso hemos encontrado solución! En algunos sitios se quita la música, o por lo menos se baja, se apagan algunas luces (en un bar que yo conozco, en lugar de luces encienden velas), se cierra la puerta y ahí se quedan dentro, "goxo-goxo", hasta que se va el último cliente.

10.7. Erantzunak • Soluciones

1. (pág. 132. or.)

- a. Goizeko ordu biak dira.
- b. Ordu bietan.
- c. Berandu da.

2. (pág. 132. or.)

- 1. Laurak eta bost.
- 2. Seiak eta hamar.
- 3. Zazpiak eta laurden.
- 4. Bostak bost gutxi.
- 5. Bederatzi eta erdiak.
- 6. Hamabiak laurden gutxi.
- 7. Hamaikak eta hogei.
- 8. Ordu bata hogeita bost gutxi.

3. (pág. 132. or.)

- a. Ixteko ordua da.
- b. Arratsaldeko bostak dira.
- c. Irekitzeko ordua da.
- d. Goizeko hiruretan.

4. (pág. 132. or.)

- a. Bazkaltzeko garaia.
- b. Irtetzeko ordua.
- c. Musika kentzeko ordua.


5. (pág. 133. or.)

- a. Hamabiak eta laurdenetatik bost eta erdietara.
- b. Ordu batetatik bederatzietara.
- c. Hiruretatik ordu bietara.
- d. Bederatzietatik hamabietara.

6. (pág. 133. or.)

gosaltzeko garaia/goizeko zortziak  
afaltzeko garaia/gaueko bederatzia  
bazkaltzeko garaia/eguerdiko ordu bata  
hamaiketakoa egiteko garaia/goizeko  
hamaika eta erdiak  
meriendatzeko garaia/arratsaldeko bost  
eta erdiak

7. (pág. 133. or.)



8. (pág. 133. or.)

Bezeroa: *¿Zer ordu da?*  
Tabernaria: *Goizeko ordu bi eta erdiak dira*  
Bezeroa: *Berandu da, etxera joateko ordua da.*  
Tabernaria: *Bai, ixteko ordua da.*  
Bezeroa: *Beno, bihar arte.*  
Tabernaria: *Bai, gabon bihar arte.*

ERREPASOA:

A. (pág. 138. or.)

1/GOIZEKOA, 2/GOIZEKOA, 3/ARRATSALDEKOA, 4/GAUEKOA, 5/EGUERDIKOA

B. (pág. 138. or.)

Begiratu 10.1 (elkarrizketa)  
Ver 10.1 (diálogo)

C. (pág. 138. or.)

- a. Taberna hau goizeko **hiruretan** ixten da.
- b. "Ekaitz" taberna arratsaldeko **bostetan** irekitzen da.
- c. Diskoteka goizeko **sei eta erdietan** ixten da.
- d. Ordutegia: goizeko **hamarretatik** arratsaldeko **zortzietara**.